

SEPARATA

Jabetzarik gabeko hezkuntza

# SEPARATA

## *Jabetzarik gabeko hezkuntza*

Koordinatzaileak: Ainhoa Ezeiza eta Javier Encina

Argitaratzaileak:

Euskal Herriko Unibertsitateko Ilusionista Sozialen Mintegia  
(ISM)

*www.ehu.eus/ism*

UNILCO-espacio nómada (Universidad Libre para la  
Construcción Colectiva)

*www.ilusionismosocial.org*

Ilusionista Sozialen Kolektiboa

*autogestion.ilusionismosocial.org*

Gurekin harremanetan jartzeko: [ilusionistasozialak@gmail.com](mailto:ilusionistasozialak@gmail.com)

Itzulpena: Ainhoa Ezeiza

Zuzenketak: Ainhoa Ezeiza

Lehen argitaldia: 2018ko iraila, Gasteiz (Araba)

Bigarren argitaldia: 2019ko ekaina, Gasteiz (Araba)

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Huarte, Nafarroa)

Lege-Gordailua: GU 120-2018

ISBN: 978-84-947515-1-6



Lan hau Creative Commons-Aitortza-Lan eratorririk ez 4.0

Nazioarteko lizentziazapean dago



# Aurkibidea

Jabe-gabetzea. Sarrera berri bat.....	5
<i>Javier Encina eta M<sup>a</sup> Ángeles Ávila</i>	
Zientiaren jabe-gabetzea, etika eta hurrei lotutako ikerketak .....	35
<i>Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza</i>	
Kultura eta kulturak.....	65
<i>Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza</i>	

# Zientziaren jabe-gabetzea, etika eta haurrei lotutako ikerketak

Ainhoa Ezeiza eta Javier Encina

*«Aztertu beharko litzateke zer gertatu den, gurea bezalako kultura batean, XVI. mendetik aurrera: nola liteke, atzekoz aurrera, korrontez kontra bezala, hizkuntza hizketan erabiltzen zelarik, izaki naturalak antzemateko moduak eta aldaaketak gertatzeko moduak zirenak zirelarik, nola adierazi duen gure kulturak ordena bat zegoela, eta ordena horren aldaerek eragiten dituztela aldaketak legeetan, erregulartasuna izaki bizidunetan, kateak eta adierazgarritasuna hitzetan; ordenaren zein aldaerak izan diren ezagutuak, ezarriak, espazio eta denborari atxikiak, ezagutzak positiboki goresteko, gramatikan eta filologian, historia naturalean eta biologian, aberastasunen ikerketetan eta ekonomia politikoa»*  
Michel Foucault (2014, 14-15. or.).

## **Botere Zientifikoaren Aliantza Hirukoitza (*Ordena eta Aurrerapena*): Ikerketa proiektuak, Zientziaren finantzaketa eta Idatzizkotasun akademikoa**

*«A prioririk gabeko zientziaren ordezkari gisa, enpiristaren ikerlanaren abiapuntua da errealitateak lehenik arazoa planteatu behar duela eta bigarrenik, gertaerak eskaini behar dituela. Biak, arazoak eta gertaerak, bertan daude enpiristaren ikuspegian. [...] Horrekin, enpiristak soilik erantzun zuzena bilatu behar die berez planteatzen diren arazo horiei, eta erantzun hori prozesu ia mekaniko baten emaitza litzateke, eta, noski, prozesu inpersonal baten emaitza, besterik gabe gertaera batzuk ordenatu beharko lirateke, pentsamendu-*

*an gardentasunez ikusten direnak»* Carlos Lerena (1989, 380-381. or.).

Ikerketa proiektuak idazten direnean, «Zientzia» egin nahi bada, ikerketa bera hasi baino lehenago helburuak zehaztu behar dira, justifikazioa, marko teorikoa, ikerketa-galderak eta prozedura metodologikoak, eta gero, hortik abiatuz, aldagaiak definitzen dira eta prozesu kontrolatua sistematizatzen da, aurkikuntzak orokortu ahal izateko, baliozkotasuna ziurtatzeko. Kontrolerako mekanismo hauen laguntzaz, *Ezagutza Zientifikoa* gizakion gainerako ezagutza eta jakintza guztien gainetik kokatzen da, eta soilik da eztabaidagarria beste *Ezagutza Zientifiko* batzuk erabiliz, ikerketa-proiektu antzeratsuetako emaitzak mahaigaineratuz. Horren ondorioz, ikerketa-talde horietatik kanpo dagoen jende guztia ezagutzen eraikitze-prozesuetatik kanpo uzten da, eta jende horrek gehienez ere ikerketa horietako emaitzak eta ondorioz sortzen diren *Ezagutza* horiek modu errepikakorrean ikas ditzake.

Prozedura zientifikoaren estandarizazioak perfektioa bilatzen du, kaosaren ordena eta ekoizpen zientifikoaren kontrola. Ezarritako protokoloetan kabitzen ez dena ez da *Ezagutzaren* munduan sartzen, eta sartzen dena, perfektua izanik, errealitatearen sinplifikazioa da, errealitatea konplexua, osagabea, inperfektua eta iragargaitza delako. Perfektio horren bila, ezagutza zatikatu egiten da, izan ere, zatikatzen denean soilik da posible tresna estandarizatuak (edo estandarizagarriak) erabiliz ikertzea. Zatiak hain partzialak izanik, Zientziaren munduko zati txiki horretan aitortza duten pertsonak baino ezin dituzte eremu txiki horretako printzipioak zalantzan jarri edo ezeztatu. Eta nola lortzen da aitortza hori? Ba eremu txiki horretan erabakitzen diren

irizpideak eta neurriak erabiliz: argitalpen kopurua (argitaratzeko, eremu txiki horretako adituek onartu behar dituzte testuak), baliabide ekonomikoak, materialak eta giza-baliabideak lortzeko gaitasuna izatea (hau da, baliabideak bereganatzeko gaitasuna izatea) eta bestelako prozedura endogamikoak. Pierre Bourdieu-k adierazi bezala (2000, 99. or.), “unibertsitatearen unibertsoak berezitasun bat du: gaur egun, gure gizarteetan, euren epaiak seguruenik epai sozialik boteretsuenak direla. Titulu akademiko bat ematen duenak adimen-patente bat ematen du (eta tituludunen pribilegioetako bat da, gainera, tituluarekiko distantzia hartu ahal izatea)”.

Planteamendu ideologiko hori zalantzan jarri gabe, ikasleak hortxe trebatzen ditugu artikuluko akademiko-zientifiko, txosten eta ikerketa-proiektuen ezaugarri testual formalak aplikatzen. Ideia hau agerian geratzen da unibertsitate-ikasketen diseinuetan idazketa akademikoari lotutako irakasgaiak txertatzeko teman (zenbait fakultateetan «alfabetatze akademiko» deritzo, beste zenbaitetan «komunikazio gaitasunaren garapena» edo antzerako izendapenak ditu). Idatzizko ekoizpena ikasketen gainerako eremuetatik aparte lantzen da, idazketa akademiko-zientifikoaren alderdi protokolarioak nola bete irakasteko (nola egituratzen den diskurtso akademiko-zientifikoa, kalitate-arauak, aipu eta erreferentzia bibliografikoen formatuak...). Ikasleek egituraketa eta formatu hauek ulertzeko eta barneratzeko dituzten arazoak «euren ezgaitasunak» eragiten ditu, «gaitasun-maila baxuz» iristen direlako unibertsitatera, edo «ezjakin hutsak direlako»... ez da planteatzen zailtasun hauen jatorria beharbada inposatutako eredu bakarraren aurrean sortzen diren erresistentziak

dirrela (kontzienteak zein inkontzienteak izan), pentsamendu egituratzeko modu honek sentitzeak eta egiteak bazter batean uzten dituelarik.

Testu akademiko-zientifikoak «zer esana» eduki baino lehenago ekoizten irakastea formazio-estrategia ona da diskurtso akritiko bat bereganatzeko, zeinetan ikaslearen ahotsa desagertzen den, ikertzaileen ahotsa testu-forma hauetan desagertzen den moduan. Pierre Bourdierrek (1985) *egia-efektua sortzea* deitu zion idazketa honi, eta honela jaso dituzte efektu honen ezaugarri testualak Juana Marinkovich eta Ricardo Benítez-ek (2000) ekoizpen zientifikoaren ezaugarri diskurtsibo ohikoenei buruz egindako ikerketa-berrikusketan:

- Ia erabateko unibokotasuna.
- Irakurleenganako interes falta, neutraltasuna azpimarratzeko.
- Erabilgarritasuna, zehaztasuna, praktikotasuna eta eraginkortasuna.
- Argumentazioaren garapen berezia, adierazgarriagoa pertsuasiboa baino.
- Esanahia adierazteko baliabide minimoak erabiltzea.
- Ezagutza espezializatuaren transmisio hutsa (debaterik sortu gabe).

Ezaugarri horiek guztiak ustez irakurketa eraginkorragoa izatera bideratuta daude, baina nabarmen oztopatzen dute ekoizpen zientifikoaren kritikotasuna. Alde batetik, giza-ahotsaren hizkuntza-arrasto guztiak desagerrarazten direnez, irakurleak ez du antzematen idazleak bere ideologiatik, bere kosmobisiotik abiatuta idazten duela, neutraltasuna ez baita posible Zientzian (are gutxiago gizarte-zientzietan). Beste aldetik, ezagutza eraikitzea zailagoa da

horrela, ezagutza modu itxi, zehatz eta eraginkorrean aurkezten delako. Horrela sortzen da Pierre Bourdieu-k *mitologia zientifikoa* deitutakoa: “*Koherentziaren bi printzipio* ageri dira aldi berean, nahasirik: *koherentzia adierazia*, zientifikotasun-adierazle morderoa erabiliz itxura zientifikoa ematen diona; eta *ezkutuko koherentzia*, printzipioz mitikoa. Diskurtso zientifikoak joko bikoitz eta ulerkerak bikoitz horren bidez duen eraginkortasun soziala hemendik dator: sozialki inportantea den arazo bati erantzun bakar eta oso bat emateko irrika inkontziente hori, mitoarekin edo erlijioarekin gertatzen den bezala, zientziaren aroan soilik asebetetzen da pentsamolde edo adierazpen zientifikoaren bidez” (Pierre Bourdieu, 1985, 152-153. or.). Itxura neutroa, objektiboa, eraginkorra... nahiz eta azpian ildo ideologiko mardula egon, iceberg bat bezain hotz, horrela idazten ikasi behar da unibertsitatean, eta ahozko diskurtsoa ere molde horietara makurtu behar da, bestela ez baita akademikoa.

Doktrinamendu prozesu honetan aurrera egiten duten horiek ondoren doktorego-tesia egiten hasten direnean, ikerketa-proiektua espainiar estatuko ikasketa-planen arabera definitu eta garatu behar dute –uneotan suposatzen da tesia bi urtetan edo gehienez ere hiru urtetan egin behar dutela (europar konbergentziaren eraginez)–, oso epe laburra oro har, eta are laburragoa ikertzen berria den pertsona batentzat. Oso denbora gutxi da proiektua definitu, oinarrizko marko teoriko bat eratu eta ikerketa exekutatzeko. Lehen behintzat, kontraesanetan eror zintezkeen prozesuan zehar, zenbaitetan sei, zazpi, hamar urtez aritzen zinen tesia garatzen, eta denbora horretan aukera zenuen erroreez ohartzeko, marko teorikoa behin eta berriz berfor-

mulatzeko, emaitzak patxadaz aztertu eta prozesua kritikoki aztertzeko... Egia da halako tesi-prozesu luzeak gogor-  
rrak direla eta ez oso osasuntsuak, baina gutxienez ikertzen  
trebatzeko denbora zegoen, ezadostasunak sortzen ziren  
eta bide berriak begitantzen ziren. Zientziaren eremura  
egiten den lehen hurbilketa diseinatutako proiektu bat  
azkar-azkar garatzea baldin bada, modu akritikoan iker-  
tzen ikasten da. Tesia defendatzeko betebeharrak –egin-  
dako lanarekin ados egon zein ez egon– ikertzaile berria  
leku egokian kokarazten du: berak baino gehiago dakien  
pertsona baten agindupean, adituak dioena modu itsuan  
betetzeko prest, Zientziaren izenean. Unibertsitate-ikaske-  
tetan analisi kritikorako apenas lekurik badago, ikerketa-  
taldeetan arazoa areagotzen da, nolabaiteko fedea eduki  
behar da ikerketa-taldeak erabakitako helburu eta posizio-  
namendu zehatzean eta ikertzeko moduan, eta eskalan  
gora egiteko ahaleginak egin behar dira, sistema hierarkiko  
bortitz batean, zeinetan estrategikoa izan behar duzun bo-  
tere posizioak hartzen joateko. Ikerketa-talde bat zuzen-  
tzen duzunean egingo duzu zuk nahi duzuna... bitartean,  
amen edo ospa... Ez da harritzekoa ikerketatik bizi nahi  
duen norbait ikertalde batean hasten denean, urte dezente  
erabili behar izatea eskalan gorago daudenen aginduak be-  
tetzen, merituak lortu eta gero eta jende gehiago  
edukitzeko bere menpe.

Problematika hau okerragotzen da Zientziaren mekanis-  
moak ulertzeko gako den beste elementu bat gehitzen  
denean: ikerketa-proiektu askotxo *ad hoc* diseinatzen dira,  
deialdiaren arabera (deialdia publikoa izan daiteke edota  
erakunde pribatuak proposatua: elkarteak, fundazioak,  
banketxeak...) edo enpresa-eremuko beharrei erantzuteko.

Ohikoa da enpresek unibertsitate publikoetako ikerketa-taldeak baliatzea euren jarduera ekonomikoetan mesedegarriak izango diren emaitzen bila: patenteak, berrikuntza teknologikoa, kontsumorako produktu eta zerbitzuen garapena... Berez, unibertsitateko ikerketa-taldeetako iker-tzaile nagusiak denbora gehiago eskaintzen dio baliabideak eta finantzabideak lortzeari ikerketa berari baino, eta denboran zehar ikerlanetik urruntzen doa eta eskala hierarkikoan beherago dagoena arduratzen da. Nola ulertzen da, orduan, ikerketa-taldean maila gorenean dagoen pertsonak, zer ikertuko den eta zer ez erabakitzen duenak, denbora gehiago erabiltzea ikerketa-deialdiak arakatzen eta betetzen ikerketa bera garatzen baino?

Carlos Lerena-k planteatu zuen bezala (1989, 381. or.), “Aditu guztiek bezala, enpiristak suposatu eta onartu behar du arazoak berez planteatzen direla eta espontaneoki sortzen direla, hori suposatu behar du enkarguz lan egiten duelako. Enpiristak merkatu baterako ekoizten du eta zehatzago, bezero zehatz batentzat (lehiaketa bateko tribunal batentzat, fundazio batentzat...). Planteatu beharreko galderak problematizatu ordez, erantzunak problematizatu dituzte, soluzioak. Bere zeregina hori da, hain zuzen ere: ikerketa-prozesutik kanpo finkatzen diren mekanismoek zehaztutako problemen erantzun alternatibo posiblei ordena bat ematea”.

Horrek guztiak zientziari zuzenean eragiten dio, Estatuaren eta Merkatuaren menpe dagoelako, beren kontratazio eta finantzarako bideen arabera eta oso egitura hierarkiko bertikalean antolatua. Estatu eta Merkatuarekiko menpekotasuna ez da Unibertsitatea «gaizki» dabilrelako, horrela funtzionatzea espero delako baizik, *Ordena eta Au-*

*rrerapenaren* ideiari segida emateko eta *status quo*-a elikatzen segitzeko. Agustín García Calvo-k honela zioen (1990, 18. or.): “Ikerketa goersten da, Ikerketa-taldeak eratzea eta Ikerketa-Planak garatzea sustatzen da, abiatuta dauden ikerketak eta amaitutakoak diruz saritzen dira etorkizuna izan dezaten; eta ia berdín zaio zein ikerketa-helburu proposatzen den [...]. [Horren emaitza da] inolako interesik gabe sortutako Doktorego Tesi uholde bat, Pertsonaren promoziorako baino balio ez duena; artikulu, liburu eta komunikazio gurdikadak sortzen dira, besterik gabe autoreak bere *curriculum vitae*-a handi dezan, eta abar. Ikerketa horietako ekoizpenak bi eratakoak izan daitezke [...]: edo otzanduak edo azalkean mugitzen direnak; baina biak ala biak, Estatuaren eta Kapitalaren zerbitzura”.

Edo Marcos Komandanteorde Matxinatuak (2016, 186. or.) adierazi bezala, “kontua homogeneizatzea da, denok berdínak bihurtzea, eta bizitza-proposamenak hegemonizatzea. Bizitza globala da. Informatika da bizitza hegemoniko globalaren gauzarik dibertigarriena, giza-balioa kreditu-txartel kopuruaren arabera neurtzen da, ekoizpenerako gaitasuna erosteko gaitasunarekin nahasten da. Akademi-koen kasuan oso argia da. Ez du garrantzirik norik dituen ezagutza gehien, edo nor den jakintsuagoa; orain gehiago balio du ikerketa gehiago egiten dituenak, eta horrela erabakitzen dira soldatak, osagarriak, unibertsitatean izango duen lekua. Horrek guztiak zerikusi handia du eredu estatubatuarrekin”.

Oso kasu gutxitan ematen du ikerketak espero ez den emaitza; agian hipotesiren bat berregiten da, baina ikertzeko moduen eta etengabeko presioen ondorioz, soilik aurki-

tzen da bilatzen dena, eta horrela behin eta berriz froga daiteke zein ona den ikerketa-proiektua. Huts egitea oso gaizki ikusia dago, eta horrek zaildu egiten du gure errore-etatik ikastea. Soilik esperientzia arrakastatsuak har daitezke kontuan. Testuinguru honetan, ez da onartze ez desadostasuna eta ez lerro nagusiak zalantzan jartzea. Eta kritikatzu gero, zokora zaitzakete, edo bazterkeriarik handiena, inklusioa, alegia: integratu, asimilatu egiten da desberdintasuna, instituzionalizatzen da... Kotsentsutik integratzen zaituztenean, normalizatzen zaituzte.

Ezagutza zientifikoa gainerako jakintza guztien gainetik kokatzeak kalte egiten dio zientziaren garapenari, baina bere arazorik handiena da bere botereak jendeari autoestimua lapurtzen diola; horrela, Zientziaren begietan, jendea «ezjakina», «superstizioso», «magufoa» da, nahiz eta ezagutza zientifikoa ugari jakintza herrikoietatik datozen, ondoren, dirutza gastatu ostean, «zientifikoki frogatzen» direlarik. “Eredu zientifikoa modaren eta ikerketa-administrazioaren mehatxu homogeneizatzaileen eraginpean hedatu denez, unibertsitatekideak zientziari omenaldi derrigortua egitera behartuta daude, hau da, natur zientzietatik hartutako hizkera erabiltzen dute zientzietatik oso urrun dauden errealitateak adierazteko” (Pierre Bourdieu, 2008, 77. or.).

### **Zientziaren jabe-gabetzea eta ikerketa etikoa**

Zientziaren jabe-gabetzeak esan nahi du bai ikerketak zuzentzen dituzten pertsonen jabe-gabetzea eta bai ezagutza zientifikoaren erabileraren jabe-gabetzea, eraikitze kolektiborantz zabal dadin. Alegia, Zientziaren boterea erabiltzeari uko egitea eta egiturak ahalik eta gehien malgutzera eta horizontalizatzea, gainerako jakintzak sortzen dituzten pertsonak balioesteko eta berdintasunez

eraikitzeko. Horrek ez du esan nahi zientzia egiten duten pertsonen lanak balio ez duenik, edo ezagutza zientifikoa gutxietsi behar denik, ez da hori inolaz ere. Kontua da ezagutza zientifikoa gainerako giza-jakintzekin elkarlotzea, jakintza konplexuagoak, aberatsagoak eta irekiagoak eraikitzeko.

Gizakiok modu asko ditugu munduaren ezagutzan sakontzeko, eta metodo zientifikotik ez pasatzeak ez du esan nahi ezagutza horrek balio ez duenik. Unibertsitateak sortu baino askoz lehenagotik transmititu izan dira balio handiko jakintza konplexuak, nahiz eta Historiaz egiten diguten kontaktetako Aurrerapenarekin halako obsesio bat izan. Historiaurreko gizakiak gaur egungoak bezain adimentsuak ziren, eta euren jakintzak elkarlotuz eta partekatuz oso pentsatze/sentitze/egite konplexuekin bizi ziren. Denborak baliozkotzen zituen jakintzak, denborak, esperientzia eta bizipenek, hutsegiteek... jende askok hartzen zuen parte jakintza horren aurkitze/sortze prozesuan, erabilera edo konprobazio prozesuan eta balorazio/ezetzatze prozesuan ere. Eta zorionez, jakintzak horrela eraikitze-ko moduek gaur egun arte diraute, jakintza herrikoiak horrela sortzen baitira oraindik ere, jende jakintsu, irudimentsu edota iaioak eskaintzen dituen jakintzak jende askoren jakintza eta trebetasunekin nahastuz, mestizatuz eta horrela, aberastuz. Jakintza herrikoiak, alternatiboak eta zientifikoak elkarren artean lotuz, egia da jakintza inperfektuagoa, osagabeagoa, ziurgabeagoa izango dela, baina horrek berak ematen dio mundu berriak sortzeko, garatzeko edota bizirauteko gaitasuna.

Jabe-gabetzearen bidez, alde batetik, zientziaren alde dogmatikoa apurtu nahi genuke, Zientziaren Fede Berriak

itxikeria eragiten duelako, itsutu egiten gaituelako. Bestetik, ulertzen dugu jabe-gabetzerik gabe, ezagutza zientifikoak gainerako jakintzen gainetik kokaturik, eta Zientziaren boterea baliatuz, gainerako jakintzetatik informazioa ostu eta pribatizatzeko arrisku larria dagoela; horren adibide dugu sendabideen gaineko jakintza komunitario garrantzitsua nola joan den farmazia-enpresetara eramaten, patentatzen eta jendeari lapurtzen, eta gero jende berari saltzen dizkiote sendabide horiek industrializaturik, esanez euren jakintzak aurrezientifikoak, baliogabeak edo supersizioetan oinarritutakoak direla.

Horrek suposatzen du zientziaren esparruan mugitzen garenok adierazi behar dugula beste jakintza horiek ere garrantzi handikoak direla, jendeak bere autoestimu indibiduala eta komunitarioa berreskura dezan. Horrekin batera, edozein ikerketa-prozesu abiatu aurretik, prozesu osoaren etikotasuna bermatu behar da. Zientziaren etikotasunaren gaia ez da berria, baina bai giza eta gizarte zientzietan etikotasun hori nola garatu, izan ere, zientzia esperimentaletan protokoloak gero eta zurrunagoak badira ere (animaliekin esperimentatzeko, adibidez, berme asko bete behar da, bai animalien zaintzan, bai erabileran eta prozeduretan...), giza eta gizarte zientzietako ikerketetan oraindik eztabaiden hastapenetan gaude. Nola ziurtatu behar da etika ikerketa soziologikoetan, adibidez? Edo, geurera ekarriz, are garrantzitsuagoa: nola ziurtatu ikerketa-prozesu osoaren etikotasuna, haurrekin lan egiten ari garenean?

Duela oso gutxi (bizpahiru urte baino ez) egonkortu da baimen informatuaren derrigortasuna hezkuntza-ikerketetan. Baimen informatua dokumentu bat da zeinetan ikerketan parte hartzen duen pertsonari argitzen zaion ikerketatik jasotako datuak nola erabiliko diren eta datu horiek nola tratatu eta babestuko diren. Hona adibide bat:

“[PROIEKTUAREN IZENBURUA]” IKAS-PROIEKTUA

Zure semearen/alabaren ikastetxea [proiektua sustatzen duen erakundearen izena] sustatutako proiektu pilotu batean parte hartzen ari da, [proiektuaren helburua].

Formazioaren eraginkortasuna ebaluatzeari begira, zure semeak/alabak klasean egingo dituen jardueren zenbait datu jaso beharko genituzke. Datu horiek guztiak modu anonimoan analizatuko dira eta datu-base batean bilduko dira; datu-base horren ardurua eta zaintza [zein erakunde arduratuko den datuez] izango du ([erakundearen helbide postalá]), pribatutasuna babesteko. Prozedura osoa *Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko kide doktore batek* eratu eta berrikusi du, prozesuaren etika bermatzeko.

Ados bazaude zure semeak/alabak proiektu honetan parte har dezan, ondorengo datuak bete eta dokumentu hau ikastetxean eman. **Baimen honek proiektu pilotua amaitu arteko balioa izango du, kontrakorik adierazi ezean.**

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, \_\_\_\_\_  
ikaslearen ama/aita/tutore denak, baimena ematen dut bildutako datuen erabilera etikoa egiteko, ikas-proiektu honen kalitatea ebaluatzeko helburuz soilik: “[proiektuaren izenburua]”.

Ikerketa honetan parte hartzea boluntarioa da eta baimen hau edozein unetan utz dezakezu bertan behera, azalpenik eman gabe, eta zure kalterako izan gabe. Zure baimena erretiratzeko, jar zaitez harremanetan fitxategiaren arduradunarekin (ikus. dokumentu honen oina).

Proiektu honetan parte hartuz gero, proiektuaren amaieran emaitzen berri izango duzu, partaideen konfidentzialtasuna errespetatuz.

Data:

Guraso/tutorearen sinadura

Ikertzailearen sinadura

Bildutako datuak, zure baimen informatua kontuan hartuta, Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak (LOPD-GDD), ezarritako eran jaso eta tratatuak izango dira, [ikertzailearen izen-deiturak]ren ardurapean; datuotan sartu, zuzendu, ezeztatu eta kontraktotasuna adierazteko eskubidea duzu fitxategiaren arduradunaren aurrean [Erakunde edo pertsona arduradunaren izena], helbide honen bidez komunikatuz: [hemen helbide elektronikoa edota postala jar daiteke].

Horrez gain, argi zehaztu behar da zer erabilera emango zaien datuei, eta adibidez Euskal Herriko Unibertsitateak derrigortzen du ikerketetako datu oro (Gradu Amaierako Lanetan ere bai) fitxategi bat zabaltzea webguneko erregistroan bertan:

<https://www.ehu.es/eu/web/idazkaritza-nagusia/rgpd-tratamendua-aitortzeko-formularioa-nola-bete>

Gure ustez, honelako dokumentu batek ez du ikerketaren etika bermatzen. Ohikoa da ikerketaren emaitzak idazketa akademiko-zientifikoaren kode linguistikoetan adierazia egotea eta ondorioz, ikerketan parte hartzen duen jendearentzat ez izatea ez ulergarria eta ezta interesgarria ere. Baina arazo nagusia da ikerketan parte hartzen duen jendeari informazioa erauzten zaiola (hau da, lapurtzen zaiola), ikertzaileek erabaki moduan landu eta prozesatzeko, eta azkenean emaitzak ikertzaileek nahi izan duten moduan islatzen dituzte, eta ikertutako jendeak egin dezakeen gauza bakarra da ikerketa-txostena irakurtzea, ezin izan baitu eztabaidatu ere egin. Adibidez, zenbait komunitate ikertzen denean, komunitate horrentzat iraingarriak izan daitezkeen ondorioak aurkezten dira ikertzaileen ikuspegia eurozentrista, arrazista, klasista, edadista edo matxista izategatik.

Haurrekin lan egiten denean hau askoz nabarmenagoa da, haurrei ikerketak aplikatzen zaizkie baina euren guraso edo tutoreak dira baimena eman edo ukatzen dutenak (argazki eta bideoak ateratzearekin gertatzen den bezala). Suposatzen da gurasoek ontzat emanez gero, haurrak ez duela zeresanik horretan. Haurrak ikerketa-helburuz erabiltzea ez dela etikoa adierazten dugunean, honelako erantzunak jasotzen ditugu: «*nola ikertuko dugu, ba, bestela*», «*etikaren*

*kontuak oztopoak jartzen dizkio ikerketari*», edo gehien gustatzen zaiguna: «*baina haurrek oso ondo pasatzen dute!!!*» (???). Saguak labirinto batean sartzen dituztenean edo LSDa ematen zaienean ere agian ondo pasatzen dute, baina ez da etikoa animaliak gure ikerketa-nahietara erabiltzea; zientifikoki oso argi egon behar du benetan beharrezkoa dela saguak erabiltzea ikerketa horretan. Haurrak, aldiz, nahieran erabil daitezke, «ondo pasatzen» duten bitartean...

Ikertzailearen etika hasieraren aurretik hasten da, proiektua egingo den ala ez erabakitzeke hasierako negoziazioan, ezin da ezer garatu ikerketan parte hartuko duen jendeak erabakitzen duenaren gainetik ezarriko dena. Hala ezarriko balitz, erabaki etiko bakarra hartu behar da: ikerketa bertan behera uztea (edo ikerketa-taldetik alde egitea). Hezkuntzan, ohituta gaude beste leku batzuetan hartzen diren erabakiak ikasleei ezartzen, gure etika profesionala zalan-tzan jarri gabe; eta gero, behin eta berriz azpimarratzen dugu jendeak ez duela parte hartzen, edo ikasleek urteak bete ahala, gero eta zailagoa dela parte har dezaten. Partehartze horretan, soilik interesatzen zaigu geuk diseinatu-tako ekintzetan parte har dezaten, baina muga asko jartzen dizkiegu ikasleek eurek egin nahi dituzten jardueri.

Partaidetza-moduak oso loturik daude ikuspegi etikoarekin, eta modu asko badaude ere, guk hiru era hauetan<sup>1</sup> laburbilduko genituzke:

- Lehena, ordaintzen digunarentzat/gatik lan egitea litzateke (bidaltzen gaituenarentzat). Ez diogu ezer gal-

---

1 Partaidetza moten inguruan, ikus honako bideoa:  
<http://vimeo.com/71911701>

detu behar geure buruari, ezta inorekin lan egin beharrik ere; eskatu digutena egin behar dugu, ezarri dizkiguten edo geuk aldeztatik ezarri ditugun helburuak bete besterik ez dugu. Adibidez, *eztakinongo* gobernua ezarritako curriculum nola edo hala betearazten dugunean, edo besterik gabe testu-liburuari itsu-itsuan segitzen diogunean, edo norbaitek erabakitako galdetegi bat hurrei pasatzen diegunean...

- Bigarrena, jendearentzat lan egitea izango litzateke. Ez diogu geure buruari ezer galdetu behar, aldeztatik finkatu baititugu helburuak, edo erantzunak aurkitu; geure proiektu barruan ez daudenekin ez dugu zertan lanik egin. Jendeak behar duena ezagutzea eta ematea da gure zeregin bakarra. Praktikan, lehenengo partaidetza motaren antzekoa da, baina «jendearengan pentsatuz» lan egiten dugu, zerbait eman edo eskaini nahian. Adibidez: «haurren beharren» diagnosi bat egitea eta azterketa horren ondoren, jarduera-mota bat prestatzea behar hori asetzeko. Edo jarduera batzuk egin ostean ikasgelan xenofobia aztarnak daudela ondorioztatu eta hortik, kulturarteko festa bat antolatu behar dela erabakitzea.
- Hirugarrena, jendearekin eta jendearengandik lan egitea litzateke. Jendearekin lan egin behar dugu, bere eguneroko bizitzaren protagonista izatea nahi badugu, jendeak bere bizitza autogestionatuko badu (beren kabuz gidatu). Horrela, prozesua abiatzen denetik aurrera, jendea izango da bere ingurua, herria, auzoa, komunitatea... nolakoa izango den eraikitzen joango dena, proposamenak eginez, kolektiboki eztabaidatuz eta, taldeka, erabakitako proposamenak gauzatzuz, mo-

du dialektikoan. Haurrekin lan eginez gero, haurrek hartuko lukete parte prozesuan, komunitateko beste pertsona batzuekin batera, proposamenak eztabaidatuz, berrikusiz...

Hirugarren era da guk erabiltzen duguna, hau da, jendearekin eta jendearengandik lan egitea da, gure ustez, prozesuaren etikotasuna bermatzeko abiapuntuetako bat. Partaidetza prozesuek beti izan behar dute dimentsio etikoa, hau da, dilema dialektikoak planteatzen dizkigun dimentsio etikoa, gauzak errazago ulertzeko eta hausnarketa kritikoaren laguntzaz uneoro posizionatu ahal izateko. Bestela, etikotasun hori gabe, prozesua botere-egituren justifikazio hutsean geratuko litzateke. Ulermenaren etika landuko litzateke horrela, Edgar Morin-ek argitu bezala (2001, 130. or.), “Etika benetan gizatiarra, hau da, antro-po-etika, hiru terminoren buklearen etika gisa ulertu behar da: norbanakoa-gizartea-espezia; eta bertatik sortzen dira gure kontzientzia eta gure berezko giza-izpiritua. Hori da etorkizuneko etika irakasteko oinarria”.

Integrista izango ez den egiteko modu bati buruz ari gara, zurruna izango ez dena, prozesuaren beraren eraginera irekita egongo dena, esperientzien garapenarekin hazten eta aberasten joango dena, egiteko modu mestizoa... errealitatea aurrez zehaztu gabe, jendearen esku egongo den tresna bat baizik ez da izango, eguneroko bizitza modu areagotuan errepika dadin. Horrek esan nahi du, halaber, ezin dugula lan egin helburuak *a priori* definituz. Ikerketan parte hartuko duen jendea (edozein adin duelarik ere) ezagutu aurretik helburuak finkatzen ditugunean, ez zaigu axola norekin elkartuko garen, bai baitakigu zer egingo dugun. Ikerketaren xedea ez da bertan bizi diren momentu

eta espazioak baino garrantzitsuagoa. Zertarako, nola, norekin... prozesuan zehar berdefinitzen dira. Hasieran erabakitakoa ere erlatiboa da, inportanteena da nola gauden une bakoitzean.

Teknikak eta tresnak ere, proiektuetan topatzen goazen egoeren arabera moldatu behar ditugu, eta ez soilik idatzita ditugun proiektuak egiteko, proiektu horiek lantzean topatzen dugun jendearekin lan egiteko ere bai. Bestela, jendearen gaintek pasatzen ari gara teknika eta tresna itxi eta amaituak erabiltzen baditugu, giza-talde zehatza kontuan hartu gabe. Beharrezkoa da jendea ez geratzea teknikak eta tresnak harrapatuta eta moldatuta, eta horretarako, teknika eta tresna berriak asmatu, bersortu, eraiki behar ditugu, jendearen nahi eta beharretara egokituko direnak, ezagutza eraldaketarekin batera eman dadin. Hori gertatzeko, beharrezkoa da lekuetan egotea, hau da, eguneroko espazio eta denboretan egotea.

“Ezin da berriaren etorrera aurrez ikusi, bestela ez litzateke berria izango. Ezin da aurrez jakin sorkuntza baten etorrera, orduan ez bailegoket sorkuntzarik” Edgar Morin (2001, 97-98. or.). *A priori* zehaztutako helburuak, xedekak, helmugak, ekintzak, eraginkortasuna, emaitzak eta eduki mordoak... horrek denak ez du garrantzirik. Gure egiteko moduak autogestiorantz bideratuak daudenean, transzendentzia nahitaez eguneroko bizitzako une, espazio eta denboretatik dator, hau da, eguneroko bizitzako harreman-moduak horizontalak izan behar dira eguneroko bizitzaren autogestia errazteko.

Azken batean, jendearekin lan egiten dugunean, oinarri praxeologiko nagusia ezin da begien bistatik galdu: jendea bere bizitzaren protagonista izan dadila, alegia. Prozesuan

horrelako hausnarketak ematen ez badira, egiteko moduek dialektikoak izateari uzten diote.

### **Ikerketa sozialaren dimentsioak**

Nola garatu zientziaren jabe-gabetzea eta ikerketaren etika oinarritzat dituzten proiektuak? Jendea gure ikerketetarako erabili ordez, gure ustez, ikertzeko modu etikoa da jendearekin eta jendearengandik lan egitea, prozesu osoan zehar irekitzeko irekiz. Edozein ikerketa hasi aurretik, egin behar dugun lehen galdera da «zertarako», eta gero, hortik aurrera, «zer» eta «nola». Ikerketa sozialean abiapuntua izaten da «*ikerketa kuantitatiboa ala kualitatiboa*» izango den, baina berez hautu hori soilik ikertzeko tresnei buruzkoa da, hau da, «nola» galderari erantzuten diote «zertarako» eta «zer» erantzun aurretik. Gure kasuan, «zertarako» galdera planteatu dugunean, orain arte sortu zaigun erantzuna da «*eguneroko bizitzaren autogestiorako*», eta hezkuntza esparruan lan egin behar dugunean, «*bizikidetzaren dinamizatzeko*». Eta erantzun horretatik abiatuta hasi gara ikerketaren dimentsioak eta moduak lantzen. Gure nahia ez da jakite hutsa, ezinegonari, ekintzari eta partehartzeari aukera ematea baizik; horregatik, nahi hauek posible egiten dituzten ildoekin egin behar dugu lan, mugimendua eta sormena pizten duten ildoekin, inplikazioa bultzatzen duten ildoekin, alegia.

Ikerkuntza sozialean, hiru dimentsio identifika ditzakegu arlo soziala aztertzeko eta esku hartzeko: banatzailea (Zientzia Objektibo deitutakoa litzateke, hein handi batean), estrukturala (Zientzia konprometitua litzateke hau neurri handi batean) eta dialektikoa (eguneroko bizitzako/bizitzarri lotutako zientziak). Dimentsio hauek ikerkuntza zertara-

ko den markatzen dute eta, era berean, parte hartzen dutenen rolak ezartzen dituzte.

Jesús Ibañez-ek (1989, 55. or.) zehaztu bezala, dimentsio edo ikuspegi batzuek eta besteek hizkuntza tresna gisa erabiltzen dute, eta erabilera horrek berak eraldatzen du hizkuntza azkenean: “ikuspegi banatzaileak, orokorrean inkesta estatistikoa aplikatzen duenak, osagai sinbolikoaren dimentsio erreferentziala aplikatzen du: *gauzak* esateko aukera ematen du (...) (gertaeren gaineko ikerketa) – horregatik deitzen diogu *deiktiko*–. Ikuspegi estrukturalak, orokorrean eztabaida-taldea aplikatzen duenak, osagai sinbolikoaren dimentsio estrukturala aplikatzen du: *hizkuntzaz* esateko aukera ematen du, hizkuntzaren bitartez (iritzien gaineko ikerketa) –horregatik deitzen diogu *anaforiko*–. Ikuspegi dialektikoak, orokorrean sozioanalisi aplikatzen duenak, osagai semiotikoa aplikatzen du: *hizkuntzarekin egiteko* aukera ematen du.

Dimentsio banatzailea funtsean kontrolerako tresna bat da, ikertutako subjektuek betetzen duten lekuagatik: galdetegi edo elkarrizketa egituratu eta itxiei baino ezin diete erantzun, ikertzaileak programatuta dauka ikertutako pertsonak ekoitziko duen informazioaren norantza. Dimentsio honek ikertzaileari interesatzen zaion norabidean soilik sortzen du informazioa. Ez du aukerarik ematen trukeko edo ideiak zalantzan jartzeko, eta hartara, subjektua ukatzen du eta objektu bihurtzen du. Dimentsio honek ikertzaileari interesatzen zaion informazioa ekoizten du soilik, inkomunikazio prozesu baten ondorioz zeinetan ikertuari ez dion uzten alternatibarik proposatzen, galderak egiteko aukera ukatuz eta posizio asimetriko batean kokatuz.

Mayra Paula Espina Prieto-k (2007a, 5-7. or.) adierazi duen moduan: “Isolamendua, bereizketa, kontrola, osotasunaren atalen artean sortzen diren elkarren arteko loturen kalitateak saihestu egiten dituzte edo bigarren mailakotzat hartzen dituzte, baita subjektu-objektu interferentzia eta anbigutasun edo dualtasun posibleak ere. Hori guztia irizpide bakarreko metodologietan bateratzen da, gauzak badira ala ez dira, modu batera ala bestera jokatzeko dute, norabide zehatz baterako joera izango du etorkizuneko mugimenduan. Hipotesi kontraesankorrak alderatu behar dira zuzena zein den behin betikoz frogatu arte. Hortik nabarmentzen da zein garrantzitsua den zientifizitatearen baldintza ikuspegi honetan. Arazo adierazgarrienak gai zehatz bateko adituek antzematen dituztenak dira (osoaren zati bat), beraiek baitira benetan gaituak daudenak, «diziplinatuak», aplikatzeko eremu zabala duten lege orokorrak aurkitzeko eta arazoei konponbide egokiak bilatzeko eta diseinatzeko. Ezagutzeko beste era batzuk ez dira adierazgarriak logika honetan, beren nolakotasuna dela eta, ezin baitituzte funtsezko objektibotasunak azalarazi...”

Dimentsio honek, kontsulta bidezko partehartzea sustatzen du, inkesta, erreferenduma, *demokrazia elektronikoak* (instituzioek planteatzen dituzten auziak zure etxeke ordenagailutik erabakitzen joan zaitezke sarritan)..., jendearen iritzia/erabakia biltzen da eta ehuneko handienak erabakitzen duena eramaten du aurrera Administrazioak edo ikerketa-taldeak. Partehartzea iritzia ematera edo bozkatzerara mugatzen da.

Dimentsio estrukturalak, bestalde, partzialki soilik onartzen du subjektua ikerketa prozesuan. Ikertzaileak jarraitzen du izaten erabakitzen duena ikertuak direnek zein

momentutan hartuko duten parte. Funtsean, iritziak baino ez ditu arakatzen, eta hori soilik tresna erdi-irekiak erabiliz egin daiteke, ikerketan parte hartzen duten pertsonen arteko elkarreragina posible egiten dutenak, eta horrela komunean dutena ikertu (gehien erabiltzen diren tresnak eztabaida-taldea eta erdi-egituratutako elkarrizketa dira). Beraz, subjektuak adierazle gisa konektatzen ditu, baina ukatu egiten die eraldatzaile izateko gaitasuna duten subjektu izateko aukera. Ezagutzearen aldekoak izaten jarraitzen dugu –oraingoan talde-ikuspegiz– baina beste batzuek –ikertzaileek edo ordaintzen dutenek– ikertuak direnen jakintzak eurenganatzeko (beraien afektu, beldur, nahiekin... batera).

Edgar Morin (2001) parafraseatuz, dimentsio estrukturalak eragiten duen murrizpena *anitza dena batzean* datza, aniztasun hori ezeztatzen duen modu arbitrario batean. Banakoa eta berezia ezabatzeko modu bat da, lege orokorrak eta identitate simple eta itxiak identifikatuz, ordenaren logika kaosaren zaborteziaren gainean eraikiz. Raúl Zibechi-k (2007, 67. or.) beste modu batera esanda: “helburu hauek betetzeko, sakabanatzea eta ezberdintasuna indargabetu beharreko alderdiak dira, edo hobeto, homogeneizazio prozesu baten bidez ordezkatu beharrekoak. Hortik dator *inklusioa eta integrazioa* nabarmentzea, ezberdintasuna baliogabetzea bilatzen dela esateko modu leuna baita. Aldi berean, instituzionalizatzea bilatzen da, mugimendu sozialaren arrazionaltasun administratibora, urbanistikora heltzeko asmotan. Zentzu horretan, estatuaren arrazionaltasuna da, ez subjektu sozialena, hauek beti irrazionaltzat jotzen baitira, edo, ezker politikoaren hitzetan, *espontaneotzat*”.

Dimentsio honek deialdi bidezko partehartzea sustatzen du, urtean zehar hainbat bilera antolatzen dira (proposatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeke), ikerketa-taldeak edo eskolako zuzendaritzak edo administrazio publikoak xede horretarako deituak; gutun bidez, publizitate estatikoa erabiliz, komunikabideetan jartzen diren iragarkiekin... gauzatuko diren hainbat ekintza erabakitzeke. Edo ikerketa-taldeak egoki deritzon unean egiten dira bilerak, ikerketa-taldeak erabakitako moduan eta ikerketa-taldeak finkatutako gaien inguruan eztabaidatzeko. Partehartzea bileretako proposamenetara, eztabaidetara eta erabakietara mugatzen da. Eta soilik bileren bidez hartzen da parte.

Ikuspegi dialektikoan, eta zehatzago, ilusionismo sozialak marrazten dituen *egiteko moduetan*, subjektuak euren egoeran ezagutzen dira (beraien eguneroko denbora eta espazioetatik abiatuta), eguneroko bizitzaren autogestioan interesa duen ikerketa prozesu batean. Ilusionismo soziala *egiteko modu bat* da (ez metodologia bat) *dimentsio dialektikoan* oinarritzen dena, metodologia partehartzaileak dituen abiapuntu (IAP<sup>2</sup> bereziki) eta lana kultura herrikoiei begira garatzen duena. *Eguneroko bizitzako espazio eta denboretan gertatzen diren bitartekaritza sozial desiratuen sorkuntza eta dinamizazioa* ditu ardatz nagusi; horretarako, jendareekin eta jendarengandik abiatuta egin behar da lan, posible denaren segurtasunetik ezinezkoaren itxaropenerantz mugituz, *eguneroko bizitzaren autogestioaren bitartez*; pentsamendua eta sentipena, ekintza eta eza-

---

2 IAP (Ikerketa-Ekintza Partehartzailea, «*Investigación-Acción Participativa*») ikerketa-metodologia bat da ikerketak eraldatzailea izan behar duela planteatzen duena eta pertsonak ikerketa-objektu izatearen etikotasuna zalantzan jartzen duena.

gutza, jakintza guztien ikaskuntza eta azterketa ezberdindu ezin direlarik; eta hori guztia, disentsuan.

Ilusionismo sozialetik lan egiten denean, jendearekin eta jendearengandik lan egin nahi da, eta horretarako inportantea da eraikitze eta adierazpen soziokultural propioetan murgiltzea, kultura herrikoien sormen-baliabideetan konplexutu ahal izateko. Metodologia partehartzaileetatik abiatzen gara, baina metodologia hauek aurrez ezartzen duten bidea uzten dugu, *metodorik gabeko postulatuekin* topatzeko.

Eta egiteko forma honetan, dena berrikus daiteke gauzak egiten/sentitzen/pentsatzen goazen heinean, autogestioa lehen unetik bertatik txertatzen da, *a priori*ak eragotziz eta eraikitze kolektiboa sustatuz prozesu osoan zehar.

Ilusionismo sozialak marrazten dituen egiteko moduak bigarren ordenako konplexutasunean oinarritzen direnez, ikerketa/bizipen prozesuan interesa eguneroko bizitzaren autogestioan zentratzen da eta dibertsitatean eta disentsuan egiten den eraikitze kolektiboan. *A priori* markatutako helburuak ez lirarteke inoiz onartu beharko, berdin dio nork ezarri dituen: ikertzaileek, liderrek, abanguardiek...

Ignacio Fernández de Castro-ren hitzetan (2008, 61. or.), dimetsio dialektikoek (bai lehen ordenako eta bai bigarren ordenako konplexutasunean oinarritzen direnak) “herritarak ispiluaren aurrean jartzea entseatzen dute, eurak izan daitezen beraien egia sortzen dutenak eta beraiek izan daitezen gizartea arakatzen dutenak demokratikoki eta euren neurrira eraikitzeko”. Prozesuan ahozko elkarreragina gertatzen da, baina batez ere subjektu indibidual eta

kolektiboen arteko loturak sendotzen dira. “Ikuspegi banatzaile eta estrukturalak aldaketa ekiditeko edo kontrolatzeko saiakeran ahitzen diren bitartean, ikuspegi dialektikoak (eta berarekin beste gailu isomorfo batzuek egiten duten bezala), *aldaketa eragiteko* estrategia batean txertatzen dira (...). Errealitatea bere egoera positiboan finkatzen saiatu ordez, bere egoera posible(eta)rantz mugitzen saiatzen dira” (Jesús Ibañez, 1989, 65. or.).

Dimensio estrukturalaren eta dialektikoaren artean ikuspegi berri bat sortu da, hibrido moduko bat: soziopraxia. Soziopraxiak lehen ordenako dialektikaren ikuspegia du: tesia/antitesia/sintesia (kontsentsua), tesi berri batera garamatzana (1. ordenako konplexutasuna). Tesiak eta antitesiak behatzailea subjektu bihurtzen dute, sintesiak, aldiz, eutsita uzten du, Jesús Ibañez-ek «*sujeto-sujetado*» deitu zuena (eta hemen bat dator soziopraxika ikuspegi estrukturalarekin, eta mendetasun prozesuak sortzen ditu irekieretik eta *Elegua* orisharekiko<sup>3</sup>); soilik da libre sintesiaren irekiera zeharkatzen badu (gainerako irekiereri uko eginez), soilik da libre askatasunari uko egiten badio.

Ilusionismo sozialean, dialektika bigarren ordenakoa litzateke: tesia/antitesia/irekiera (disentsua), tesi berrietara garamatzana, elkarri lagunduz gauzatu litezkeenak, kolektiboki eraikiz; prozesu hauetan, antitesi berriak zabalduko dira, irekiera berriak sortuko dituztenak (2. ordenako konplexutasuna). Partaidetza mota honek behatzailea subjektu bihurtzen du, autonomia eta elkarren beharrari lotutako mugimenduak sortzen ditu, eta horrela autoantolaketa eragiten du, Heinz Von Foerster-ek (1991) zehaztutako

---

3 *Elegua* orisha bidea ireki ala itxi erabakitzen duen jainko yoruba da.

bigarren ordenako Zibernetikan bezala. Etengabeko irekiera hauek askapenerantz doan subjektua eraikitzen dute.

Jesus Ibáñez (1989) parafraseatuz, eraikitze demokratiko hau subjektu gisa bizi bada baizik ez da posible; horretarako, ulertu beharra dago *subjektua prozesuan* posizioa gizarte-sistema ezagutzeko jardueratik jaiotzen dela, eta ikerketak zabaltzen diola gizarte-sistema etengabe eraldatu behar duela egiaztatzeko aukera, subjektu gisa bizitzea posible izaten jarraitzeko, Boterearen baimenari eutsita geratu gabe («*sujeto sujetado*»).

Dimensio dialektikoak nork bere espazio eta denboretan parte hartzea sustatzen du, eguneroko bizitzaren autogestiorantz, proiektu baten aitzakiaz (aurrekontu partehartzaileak, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, Plan Estrategikoa, Elkarbizitza Plana, 21 Agenda...). Dena eguneroko espazio eta denboretan eraikitzen da, aitzakia den proiektua bizitzatik bertatik bereizi gabe (hartara, proiektua tresna huts bilakatzen da), proposamenak, eztabaidak eta erabakiak proiekturako sortzen direlarik, baina baita eguneroko espazio eta denbora horietarako ere: proposamen batzuk administrazioek gauzatu beharko dituzte, beste batzuk jendeak berak. Parte hartzea ez da ez bozkatzea eta ez bizitze hutsa ere, lan kolektiboaren balioa azpimarratu behar da; zentzumenak piztera behartu behar dugu geure burua, eta horrela ezinezkoak bizitzera hurbilduko gara: urrun ikusten genituen horiek, ortzemugan desagertzen ziren hodei-buztanen antzera ikusten genituen horiek, itsusia desagerrarazi gabe, gure itxaropenak agertzeko tristurak erratzaz baztertu gabe... Hau ulertzen dugu

autogestiorako joera duen partehartze prozesu bateko erlazioatzeko moduak bizitzen ditugunean.

Printzipioz, objektutik subjektura pasatzeak zer esan nahi duen honela azaldu digu Inma Fuentes hezitzaileak (*Child Inclusion* proiektuan babesgabeko egoeran dauden adin txikikoekin lanean ari denak): «dena aurrez zehaztuta, aurrez esanda eta aurrez eginda, aurrez prestatuta dagoen mundu batean bizi gara, dena antolatuta eta planifikatuta dago, ez dago subjektuari hitz egiten uzteko tarterik. Egiteko forma honek duen politena da lan egiten duguneko jendeak parte hartzen duela eta hezkuntza prozesua partaidetzatik, egiteko moduetatik eta egin nahi izatetik abiatuz eramaten dela». Azken batean, ikuskizunetik, zure bizitza eserlekutik begiratzetik, eguneroko bizitzaren protagonista izatera pasatzea da kontua.

Horrek guztiak laguntzen digu ulertzen ezagutza ez dagoela ekintzatik eta sentitzetik bereiztuta, gauza bera dira, ez daude une bereizgarriak gizarte zientzia estrukturalak planteatzen duten moduan, batera doaz; ikerketan ezin dira aparte pentsatu pentsatzea, ekintza, partaidetza eta sentimenduak, fikziozkoa litzateke, munduan gertatzen ez den zerbait, eta guk egiteko moduak bilatzen ditugu, mundua eraldatzen lagunduko digutenak. Ezagutza, ekintza eta sentimendua bereizten ditugunean, subjektuak ekintzara eutsita uzten ditugu eta ikertzaileak ezagutzara, edo kasurik onenean, psikosiaren moduko nor-tasunaren desdoblea eragiten dugu (desdoble horren eskizofrenia sentitzen dugunean)... Prozesu bat soilik da eramangarria ezagutza, ekintza eta sentimendua batuz eta etengabe sortuz. Gure ikerketak soilik pentsatzean fokalizatzen baditugu, abanguardian ari gara jartzen enfasi osoa;

berdin, soilik sentitzea landuz, asistentzialismoa eragiten eta sustatzen ariko gara; eta azkenik, pentsatzeak eta sentitzeak alboratuta, gure energia eta gaitasunak ekintzan kontzentratzen baditugu, aktibismo hutsean amaituko dugu. Ikerketetan, ezagutza, ekintza eta sentimendua ekoizten dira taldeekin eta taldeengandik. Ikerketak eta prozesuak komunitatean etengabe sortzen diren hausnarketa kolektiboekin, sentimenduekin eta ekintzekin lan egitea da.

### **Erreferentzia bibliografikoak:**

Pierre Bourdieu (2008). *Homo academicus*. Buenos Aires: Siglo XXI.

----(2000). *Cosas dichas*. Bartzelona: Gedisa.

----(1985). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril: Akal/Universitaria.

Mayra Paula Espina Prieto (2007). Apuntes sobre Complejidad, transdisciplina y metodología de la investigación. *3er Taller Bienal Cubano Transdisciplinar en el Pensamiento y las Ciencias de la Complejidad*, organizado Cátedra de Complejidad del Instituto de Filosofía de La Habana.

Ignacio Fernández de Castro (2008). El laberinto de las metodologías. *Cuchará y paso atrás*, 18.

Michel Foucault (2014). *Las palabras y las cosas. Una arqueología de las ciencias humanas*. Mexiko D.F.: Siglo XXI.

Agustín García Calvo (1990). Desengaños acerca de Universidad, Enseñanza, Investigación. *Revista de Enseñanza Universitaria*, 1(1).

Jesús Ibáñez (1989). Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión. M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (konp.) *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril: Alianza.

Carlos Lerena (1989). *Escuela, Ideología y Clases Sociales en España. Crítica de la sociología empirista de la educación*. Bartzelona: Círculo de Lectores.

Subcomandante Insurgente Marcos (2016). La IV Guerra Mundial (plática impartida el 20/11/1999). R. Zibechi, *Latiendo resistencia. Mundos nuevos y guerras de despojo*, pp. 181-207. Málaga: Baladre/Zambra.

Juana Marinkovich eta Ricardo Benítez (2000). Aproximaciones al análisis intertextual del discurso científico. *Revista Signos*, 33(48), 117-128.

Edgar Morin (2001). *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Bartzelona: Paidós.

Heinz Von Foerster (1991). *Las semillas de la cibernética: obras escogidas*. Bartzelona: Gedisa.

Raúl Zibechi (2007). *Dispersar el poder*. Bartzelona: Virus.